


BERRIGARA

Erramu Zapatuko
Feria larunbatean

1. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1995, apirilak 7

**Txakur
leren
lasterketa**


Burberrys
OF LONDON



egizabal


CARTUJANO

LEVI'S 501 XX USA

PEYTON

PANAMA JACK



Altzarien dekorazio eta erakusketa

- BETIKO LEIHOAK GAURKO TEKNOLOJIARI EGOKITUTA
- EZ HOTZIK, EZ ZARATARIK, EZ URİK!!
- LEIHO TERMOAKUSTIKOAK
 - ATEAK
 - ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK

ARozTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefona eta Faxe: 76 54 91

**ZAToZ GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA**



ARGALTZEKO

*KILO horiek KENTZEKO
ERREMEDIo baten BILA zabiltza?*

BIDERIK ONENA...



ZURE pisua ZAINDUKO DUGU



ZURE osasuna ZAINDUKO DUGU

Biologo dietista. Dieta pertsonalizatuak.

HURBIL DIETETIKA. Telesforo Aranzadi, 2 ☎ 76 30 08

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarteak.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate
Erredakzioa:
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
Jone Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil

Publizitatea:

Alex Azkarate
Harpidetzak:
Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola
Mariipi Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elorza
Miguel Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien
Itziaki Eraña

Komikiak:

Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Jose Martin Ezenarro
Julian Ezenarro
Alex Ugalde
Unai Azkarate

Portadako argazkia:

POL-POL Argazki Taldea
Banaketa:
Txantxangorri taldea

Tirada:

3.800 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

XABIER ARANBURU

Bergarako Udal Museologoa

- Zein helburu du Aste Santuan zabalduko den turismo bulegoak?

- Kanpotarrei zein herritarrei herria erakustea. Bergarako gune historikoa ezagutzeko bisita gidatuak antolatuko dira eta nobedade gisa, egun gehienetan (Ostiral eta Larunbat Santuan izan ezik) bi parrokiak barrutik ikusteko aukera izango da. Gainontzeko egunetan ordubeteko bisita gidatuak izango dira arratsaldeko 5etatik 6etara. Azalpenak euskaraz eta gazteleraz emango dira eta, behar izanez gero, ingelesez eta frantsesez ere bai. Eta bergararrek ere parte har dezaketela azpimarratu nahi nuke.

- Eta zein ordutegi izango du turismo bulegoak?



- Apirilaren 10etik 24ra egongo da zabalik Udaletxeko sarreran ordutegi honekin: lanegunetan 10.30etatik 13.30etara eta 4retatik 6etara eta jaiegunetan, berriz, 11etatik ordubietara. Bertan gainera, herriko informazioaz gain, kanpora joan nahi dutenek Euskal Herriko informazio turistikoa ere jaso ahal izango dute.

"Turistentzat zein herritarrentzat bisita gidatuak izango dira Aste Santuan"

I T U R R I O N E T I K

Artekale apirilaren azkenetan zabalduko da trafikora

Udaletik adierazi digutenez, apirilaren azkenetan zabalduko da Artekale trafikora. Kalearen urbanizazioa amaitu da dagoeneko baina obra zuzendu duten teknikoek, egindako lanak ondo asentatu bitartean, oraindik ez zabalteko eskatu dute. Udaletxearen atzekaldean adokina berreskuratzeko lanak egin dira azken bi hilabeteetan. Gainera, Artekaleko bizilagun eta komertziantek, kalea itxita egon behar zela eta, gasa sartzeko eskakizuna egin zioten Udalari. Udalak baiezkota eman eta orain kalean gasa sartzeko lanetan ari dira. Beraz, hilaren amaieran espero da kalea trafikora zabaltea.

E S A N D U T E

"Artista niretzat da bere lanarekiko kritiko dena, ikasi eta aldatu egiten duena; ez aldatu aldatze hutsagatik, baizik eta irizpide baten arabera aurrera doana gauzak modu berriak bilatu nahi horretan. (...) Norberak osagaiak gertaeretatik, lagun artetik, zinematik eta beste mila lekutatik berenganatzen ditu. Gehiegi pentsatzeke, askotan berba egiten konturatzen zara zein gauzak esaten dituzun".

MANU MUNIATEGI
Pintorea
EGUNKARIA

"Gustorago jokatzeko dut atzekaldean aurrean baino"

AGUSTIN ARANZABAL
Realeko futbolaria
MARCA

"Ezkerrarekin baloia ondo ikutzen du eta futbola erraz ikusten du, baina buruz hobe joango litzateke, duen altura ondo aprobetxatuko balu"

"GAZTELU"
Aranzabalen aita
MARCA



Misericordia
"INSTINTO BÁSICO"
Misericordia
"ATRACCIÓN FATAL"

EL COLOR DE LA NOCHE
Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



LOS HOMBRES SIEMPRE MIENTEN
Osteguna: 17.00, 19.30, 22.30.



Zinea

▼▼ *Instinto básico* eta *Atracción fatal* filmeen bidetik, **Richard Rushek** zuzendutako filme honek ere zeresan ugari sortu du Estatu Batuetan. Hilketa bat dela medio, psikologo bat (**Bruce Willis**) eta *Rose* izeneko neska gazte baten (**Jane March**) arteko erlazioa planteatzen zaigu. *Rosek* eta *Billen* (**Willis**) amodiozko istorio bat izaten duten bitartean, *Billek* gero eta harrapatuago aurkituko du bere burua...

▼▼ **Gabino Diegok** eta **Beatriz Ricok** protagonizatutako **Antonio Del Realen** komedia honen ondoren honako filme hauek ikusi ahal izango dira Novedades aretoan Aste Santuan: **Escape de Absolom** (ostiralean), **Rio salvaje** (larunbata eta igandea) eta **Me gustan los líos** (astelehena eta asteartea). Ohizko orduetan.

▼▼ Udal Musika Bandak honako pieza hauek joko ditu igandean 12.30etan Novedadesen: *Udaberriko txoria* (A. Glez. Chirlaque), *Rosamunda* (obertura, F. Schubert), *Rendez-vous* (J. Haderman), *Luisa Fernanda* (Selekzioa, M. Torroba) eta *West Side Story* (L. Bernstein). Aurretik, Bandaren kalejira izango da.



Deiak

▼ **Eusko Alkartasuna.** Apirilaren 16an Aberri Eguna, Iruñeara joateko autobusak. Izen-ematea Alkartetxean (76 26 81 telefonoa).

▼ **Orkesta Sinfonikoa**ren kontzertua igandean gaueko 9etan, Durangoko Parrokian.

▼ **Ski irteera** Alpeetara Aste Santuan. Argibideak Pol-Polen.

▼ **EAJ.** Hilaren 16an Irunera, Aberri Eguna joateko autobus eta bazkari txartelak Batzokian. Irteera 10etan Beheko Estaziotik.

▼ **Pol-Polen akanpada** apirilaren 13tik 17ra Zurizan.

▼ **3. Munduaren** aldeko jaialdi ekitaldia bihar larunbata 8etan Antzuolako zine aretoan.



Ogia

▼ **Igandea 9:** Bolintxo.



GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 7:** Camacho.
- ▼ **Larunbata 8:** Puy.
- ▼ **Igandea 9:** Puy.
- ▼ **Astelehena 10:** Guallar.
- ▼ **Asteartea 11:** Estella.
- ▼ **Asteazkena 12:** Mozos.
- ▼ **Osteguna 13:** Camacho.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

Erramu Zapatuko Feria

Erramu Zapatuko Feria ospatuko da bihar Bergean. Goizeko 9.30etan ferixa zabalduko da Ibargarai kalean eta bertan abelburuak eta baserriko produktuak eta makinaria izango dira ikusgai. Horrela, besteak beste, 80 bat behi eta txahalburu izango dira, 50 buru ardi eta beste 25 bat zaldi eta behor. Aurreko urteetan bezala ez da ganadu lehiaketarik egingo. Baserriko produktuei dagokienez, artisau lanak, ogia, taloa, sagardoa, txorizoa, Errioxako ardoa, gazta... etab. luze bat ikusi eta dastatzeko aukera izango da; eta makinarien artean, berriz, traktoreak, kotxeak eta horrelakoak izango dira erakusketan. Udal iturriaren arabera, postuak jartzeko eskaerak gora egin dute eta horren lekuko baserriko produktuen erakusketak 250 metro lineal beteko ditu.

Bestalde, goizeko 11etatik aurrera JARDUNeko Gazte Taldeak antolatutako txorimalo lehiaketaren lanak ere Ibargarai kalean ikusi ahal izango dira. Sari banaketa ordubatean egingo da eta adinaren arabera hiru kategoria bereiztuko dira: 14 urtetik beherako irabazleek 50 lagunentzako bidai bat eskuratuko dute eta 15 urtetik

80 bat behi eta txahalburu, 50 buru ardi eta 25 zaldi eta behor inguru erakutsiko dira



Egualdiak laguntzen badu jende ugari bilduko da feriarengatik.

60ra bitartekoak eta hortik gorako mailatan, lehen biek, 15.000 eta 10.000 pezetako sariak jasoko dituzte.

Sari banaketaren ondoren, 13.30etan, Narbaiza eta Egileor bertsolarien sa-

ioa izango da Aranzadi Ikastolako patioan eta arratsaldeko 5.30etarako herri kirolak iragarri dira. Goenatxo harrijasotzailea marka hausten ahalegingo da eta jarraian Arrospe eta Mugerza aizkola-

Jardun elkarteak txorimalo lehiaketa antolatuko du gazte zein helduentzat

riak arituko dira lehian. Ondoren gizon probak eta ahari jokoak izango dira.

Bukatzeko, gauean bertsolari jaialdia Novedadesen. Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Peñagarikano, Iñaki Murua, Gorrotxategi eta Maialen Lujanbio izango dira bertsotan; gai-jartzaille, Laxaro Azkune. Sarrerak 1.000 pezetatan jarriko dira salgai.

Trafiko aldaketak

Erramu Zapatuko Feria dela eta, Ibargarai kalean trafikoa moztuko da 4. zenbakitik 14ra bitartean. Beraz, kale horretan ezin izango da aparkatu egun horretan eta kalea kotxez libre goizeko betarako egon behar da. Seminario ondoko aparkalekua ere goizeko betarako libratu beharko da. Bestalde, beheko geltokiruntz doan trafikoa Zurradero kaletik bideratuko da eta trafikoa kontrako zentzuan bariantetik joan beharko da. Herriko goiko aldetik dabilen trafikoa feriak irauten duen bitartean San Martin plazatik bideratuko da.

**Zure
konfidantzako
denda**



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

◆ **Xamatz**

Xamatz dantzaldearen 10. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barne, apirilaren 29tik aurrera Larrain dantza (La Era) ikastaroa izango da larunbat goizetan, 10.30etatik 12etara. Izen-ematea (doan) Pol-Pol, Arrano edota Kortazar tabernetan egin daiteke apirilaren 22ra arte.

◆ **Zezenzaleak**

Zezenzaleak taldeak apirilaren 22an Idizabal anaien ganadutegia bisitatzera joateko Vilafranca de Navarrara egun osoko irteera iragarri du. Izen-ematea (6.000 pta.) Ganbara tabernan hilaren 18a baino lehen.

◆ **Jardingintza**

Arrasateko Udalak eta INEMek ikasketarik gabeko langabetuei zuzendutako jardingintza ikastaroa antolatute maiazaren 2tik aurrera. Argibideak INEMeko bulegoan apirilaren 10era arte.

◆ **Berrigara oporretan**

Aste Santuko jaiak direla eta, datorren astean ez da Berrigara kaleratuko. Hurrengo alea apirilaren 21ean helduko zaizue.

JAIOTAKOAK

Julen Irizar Laskurain

Martxoak 26

Sara Iturbe Madinabeitia

Martxoak 27

HILDAKOAK

Juanita Gabilondo Aizpiri

Apirilak 5, 85 urte

Maria Azkarate Elkoro

Apirilak 6, 84 urte

1995erako bi mila milioi pasako presupuestoa du Udalak

Asteleheneko plenoan onartu zuen Udalbatzak

Udalbatzak 1995erako 2.179 milioi pezetako aurrekontua onartu zuen asteleheneko ez-ohizko Plenoan, EAJ eta PSE-EEren aldeko eta HB eta EAren kontrako botoekin. Udalak 1.928 milioi pezetako aurrekontua izango du, Mizpirualde Egoitzak 200 milioi eta Euskaltegiak, berriz, 51 milioi pezetakoa. Iazko aurrekontuarekiko %8,53an jeitsi da aurtengoa.

Victoriano Gallastegi alkateak aurrekontuaren aurkezpenean gastuaren mantentze bat ematen dela adierazi eta iazko ejerzizioa positibotzat jo zuen. Alvaro Esparzak (PSE-EE), bestalde, ontzat eta errealistatzen jo zuen aurrekontua, 153 milioi pezetako jeitsiera ematen baita. Juan Daniel Kortabariak (HB), berriz, osoarekiko enmendakina aurkeztu zuen. Bere hitzetan *"EAJk eta PSE-EEK bakarrik landutako aurrekontua da, zorra %22koa da eta hauteskundeak gainean direla ez zaigu aproposa iruditzen aurrekontua onartzea"*. Victoriano Gallastegik alternatibarik ez zutela aurkezten erantzun zion.

Enmendakinaren botazioan EA abstenitu egin zen eta EAJk eta PSE-EEK ezezkoa eman zuten. Boto esplikazioan HBk zalanztan jarri zituen, besteak beste, soldatetan ematen den gehikuntza (%3,5a), maileguak eta interesak edota Uren Kontsorzioari ordaintzen zaion ura, are eta gehiago Bergara uretan



Udal Euskaltegiak 51 milioi pezetako aurrekontua izango du aurtun.

oso aberatsa izanik. Alkateak Urkulutik ekartzen den urak garantia guztiak dituela erantzun zion eta hori Bergaran bermatzea ezinezkoa dela. Juan Mari Garitanok (EA) aurrekontuari ezezko botoa emateko arrazoiak aipatu zituen: Udaletxearen berrizteak ekarri duen zama, industrialdeari aurrera egiteko diru gutxi egotea eta hurrengo gobernua nortzuk osatuko duten ez jakitea. Alkateak zorra %19tik 22ra bakarrik igo dutela eta Industrialderako aurtengo gastuak jaso direla erantzun zion.

Gastuak eta sarrerak

Gastu garrantzitsuenen artean 527 milioi pertsonalarenak dira, 377 milioi mantenimenduarna, finantza gastuak 160, transferentziak 324 milioi, inbertsioak 427 milioi eta amortizazioak 85 milioi pezeta. Sarreretan, besteak beste,

zuzeneko eta zeharkako zergak, tasak, prezio publikoak eta besteak 708 milioi eta instituzioen laguntzak 713 milioi pezeta.

Arau subsidiarioak

Jarraian arau subsidiarioen gainean jasotako alegazioei erantzuna eman zitzaien. Aurretik Fraiskozuriko bizilagunen izenean, Eukeni Zabalak hartu zuen hitza eta beren etxebizitzetatik bota aurretik baldintzak negoziatzeko eskatu zion Udalari. Alkateak Udalak ez duela inor botatzeko asmorik eta Udala gaia sakonki aztertze prest dagoela erantzun zion. Alegazioen erantzunak hilabetez egongo dira ikusgai hasierako onarpena eman aurretik.

Bestalde, alderdi guztiak, HBk ezik, aurreko astean Erreterian gertatutako istiluen kontrako idatzia onartu zuten. HB abstenitu egin zen botazioan.

◆ Obserbazio irteera

Mendia Bizirik Arabako Mendialdean Entzia-Iturrieta eta Lokiz inguruko guneak bisitatzeko irteera antolatu du biharko, apirilak 8rako. Interesa duten guztiei parte hartzeko deia egiten zaie. Irteera goizeko 8.15etan egingo da Frontoitik.

◆ Jubilatuen irteera


Jubilatuek apirilaren 14an San Vicente de la Sonsierra (Errioxa) joateko egun osoko irteera antolatu dute. Irteera goizeko 8.30etan egingo da eta bazkaria Haron. Itzulera, berriz, arratsaldeko 7etan. Prezioa 2.500 pezetakoa da (plaza mugatuak).

◆ Futbolin txapelketa

LAMEk hilaren amaieran hasiko den futbolin txapelketa antolatu du. Lehen hirurentzat 100.000, 50.000 eta 25.000 pezetako sariak izango dira. Finala maiatzaren 20an izango da eta izen-ematea Oilagorria, Pol-Pol eta Arrano tabernetan egin daiteke.

◆ Argazki lehiaketa

Udalak eta Pol-Pol Argazki Taldeak "Bergara Hiria" argazki lehiaketaren XI. edizioa antolatu dute. Bertan nahi duten argazkilari guztiek parte hartu ahal izango dute. Partaide bakoitzak, gehienez, 4 argazki aurkeztu ahal izango ditu eta teknika libre erabili ahal izango da. Lanak 30x40 cm.ko kartulinetan entregatu beharko dira maiatzaren 24a baino lehen. Koloretako zein zuribeltzeko kategoriako onenentzat sariak izango dira. Epaimahaiaren erabakia maiatzaren 27an emango da jakitera.



Euskara Hitzarmena bultzatu duten erakundeetako ordezkariak pozik daude emaitzekin.

Herriko 22 talde Euskara Hitzarmenera gehituko dira

Bihar goizeko 11etan sinatze ekitaldia Udaletxean

Duela 3 urte Udalak eta Jardunek bultzatu zuten Euskara Hitzarmenaren bigarren sinatze ekitaldia izango da bihar larunbata goizeko 11etan Udaletxeko Pleno Aretoan.

Gogoratuko duzuen bezala, "Euskara gazteena" kanpainaren barruan, herriko talde eta elkarten funtzionamendua eta elkarren arteko harremanak euskaraz izateko asmoz egin zen Euskara Hitzarmena. 49 entitatek sinatu zuten Hitzarmena eta Eli Payros Hitzarmeneko teknikariak urte hauetan egindako lanaren balorazio positiboa egin du: "*datu onak jaso ditugu eta ondorioz beste 3 urtetarako berrizteko erabakia hartu da*". Esate baterako 1992an hitzarmena betetzen zuten idatziek %82a suposatzen zuten eta 94an, berriz, %96,38a. Ahozko emaitzen artean ere hobekuntza na-

baria izan da eta heziketa iharduera ezberdinetan euskararen presentziak gora egin du.

Biharko sinatze ekitaldira 22 talde gehituko dira. Koldo Pereira Euskara Batzordeburuak euskalduntze prozesuan gizarteak eta administrazioak parte hartu behar dutela azpimarratu zuen. Bestalde, Estepan Plazaola Euskara Zerbitzuko arduradunak aipatu zuenez, "*helburua euskara gazteen artean bultzatzea baldin bazen ere, Hitzarmena zabaltzen joan da eta beste talde batzuk (alderdi politikoak edota ikas akademiak) sartuko dira orain. Hitzarmenak eragin haundia izango du etorkizunean*".

Jose Angel Mikeo Jardun Elkarte-ko presidente ohiak ere oso positibotzat eta pozgarritzat jo zuen talde berriak gehitzea.

Amets

- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
 - Zango erremolkeak
 - Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak
- Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
 Berezano auzoa OÑATI



BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Uriarte, 8 BERGARA
 ☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxes: 76 04 77



GUIPUZCOANA

Paketean garraio eta banaketa

BERGARA

San Juan Erreka. Elgetara bidea.

Tfnoa: (943) 76 36 42 / Faxa: (943) 76 54 25

OPTICOS ASOCIADOSek PACK GAZTE

Berria eskaintzen dizu

**Erabili eta botatzeko
ukipen lenteak, 6
hilabeterako**

**Disoluzio
bakarreko
2 pote**

16.000 pzta. bakarrik

Lenteentzako kaja



Gaur egun dituzun ohiko lenteak
ukipen-lente bigun bihurtzen ditugu

BAUSCH & LOMB

14.000 PZTA. BAKARRIK (*)

Eta, gainera, OPARIA:
BAUSCH & LOMB en SeeQuence
erabili eta botatzeko lenteak, doan,
egokituko dizkizugu, proba ditzazun.

* GRADUAZIOAK KONTSULTATU



OPTICOS ASOCIADOS EN ESKAINTZA BEREZIA.
1995EKO APRILEAN DU BALIOA

P. Manso
Optika

Irizar pasealekua, 2

Jardunek zuzendaritza berria aukeratu du



Miguel Altuna hil egin da

Aurreko larunbatean Miguel Altuna Lizarraga apaiza hil zen, 78 urte zituela. Amezketarra jaiotzez, Miguel Altuna oso ezaguna zen Bergaran, apaiza izateaz gain, hezkuntzaren aldeko lan aipagarria egin baitzuen gure herrian. 1944an etorri zen Bergarara eta Lanbide Heziketa Institutuko bultzatzaileetarikoa bat izan zen. Urte haietan egindako lanaren eskertza modura, ikastetxeak Miguel Altunaren izena darama 1993eko abendutik. Bergararik alde egin ondoren, 1979tik 1993ra bitartean Donostiako Artzai Onaren Katedraleko parrokoa izan zen Miguel Altuna. Gōian bego.

Jardun Elkarteak Zuzendaritza Batzorde berria aukeratu zuen asteazkeneko Batzar Orokorrean. Beste proposamenik jaso ezenez, Jardunek proposatutako lagunek osatuko dute Zuzendaritza Batzordea: Eneko Azkarate, Andoni Etxeberria, Felipe Iñarra, Arantzazu Larrañaga, Alazne Mendizabal, Nora Palmitano eta Eider Ugaldek. Zuzendaritza Batzordeak berak aukeratuko ditu presidentea eta gainontzeko karguak.

Jose Angel Mikeo elkar-teko presidente ohiak datorren hilean, maiatzean mintegia egiteko asmoa dagoela azaldu zuen elkar-tea sortu zeneko 5 urte betetzear baitaude. Hurrengo urteetarako lehentasunak, antolaketa, beste taldeetara harremanak, etab. aztertuko dira. Aurretik beharrezko informazioa bidaliko zaie bazkideei. Gaur egun elkar-teak 570 bazkide ditu.

Era berean, Andoni Etxeberriak hilean behin edota bi hilean behin bazkideei zuzendutako infor-



Jarduneko ordezkariak iazko urtearen balorazio positiboa egin zuten batz-

mazio orri bat kaleratzeko asmoa azaldu zuen. Informazio eta formazio orria izango da eta bertan elkar-tearen ekintzen berri eta euskararen inguruko informazioa jasoko da.

Bestalde, Etxeberriak jakin arazi zuenez, Jardunek Udalarekin sinatutako hitzarmena abenduan amaituko da. Jardun alderdi politikoko guztiekin bilduko da bere asmoak azaltzeko eta hurrengo hitzarmena 4 urtetarako izatea da Jardunen

helburua.

Asteazkeneko bileran Jarduneko talde ezberdinek iazko urtearen balorazio positiboa egin zuten.

Diru kontuei dagokierenez, bileran aipatu zenez iaz Jardunek 286.000 pezetako defizita izan zuen Diputazioaren dirulaguntza %50ean jeitsi baitzen. Autofinantziarioa %48koa izan zen. Berrigararen kasuan aurrekontua bete zen. Autofinantziarioa %52koa da aldizkariaren kasuan.



Garitano, Oregi, Retegi eta Larrañaga astearteko hitzaldian.

Javier Retegi eta Eneko Oregi Bergaran hizlari

Jende dexente bildu zen asteazkenean Miguel Altuna Institutuan ikastetxearen 50. urteurrenaren inguruan antolatutako hitzaldia jarraitzeko. Javier Retegi Industri Sailburuak, Eneko Oregi Hezkuntzako Sailburuordeak eta Jose Luis Garitano Adegiko idazkariordeak *Lanbide Heziketa eta enpresa* gaiari buruz jardun zuten. Hirurek enpresa eta eskolaren arteko lotura sendotzeko garrantzia azpimarratu zuten. Espezializazioak gero eta garrantzia gehiago duela aipatu ondoren, espezializazio hori lortu ahal izateko eskolak zein enpresek baldintza hoberenak eskeini behar dituztela esan zuten hizlariek.

Gaia landuz.....

Zaleak atletismo taldea

Herriko lasterkari gazteekin lanean

Orain dela urte mordoxxka bat sortutako Zaleak atletismo taldeaz hitzegingo dizuegu oraingo honetan.

Joan zen urtean elkartu ziren zazpi laguneko korrikalari talde honen artean entrena-tzailea eta maskota ere badugu. Baita Euskadi guztiko lasterketa garrantzitsuetara joateko aukera ere, adibidez: Lasarte, Hondarribia, Behobia-Donostia, Ordizia etab...

Pistan eta krosean aritzen gara baina beti ere lagungiroan eta alaitsu. Kirol honetaz aparte beste asko ere egiten ditugu. Nahiz eta lasterketa bat ere ez irabazi gure umore eta saltsak ez digu ihes egiten.

Momentu hauetan gustatuko litzaigukeena gure taldean jende gehiago biltzea izango liotzateke, mutil nahiz



Zaleak atletismo taldeko lagun kuadrila gogoz dago korrika zale berriak taldean hartzeko.



neska izan eta 14-15 urte bitartekoak.

Entrenamenduak astelehen, astearte eta ostegunetan izaten

dira, 5.30etatik aurrera eta badakizu, kirola egin nahi baduzu dei ezazu telefono honetara: 76 32 39 (Alex).

"Pistan eta krosean aritzen gara, baina beti lagun giroan eta alaitsu. Beraz, badakizu, anima zaitetz"

.....9 galdera motz

27 urteko urrestilar hau Bergarako Ipintza Institutuko erlijio irakaslea da. Ea, bada, zer dioskun pertsonaia kurioso honek



Aitor Arruti
Erljio irakaslea

1 Zenbat urte daramatzazu irakaskuntzan?

Lau urte

2 Zein gaitako irakaslea zara?

Erljio asignatura ematen dut.

3 Biblia osoa irakurtzeko gai izan zinen?

Ez. Zati batzuk, ordea, irakurri ditut.

4 Zergatik erlijioa?

Filologoa naiz. Erljioa emateko aukera nuenez...

5 Ondo konpontzen al zara ikasleekin?

Gehienekin bai.

6 Ba al daukazu afiziorik?

Asko. Kirola, zinea, literatura, etab.

7 Zein musika gustatzen zaizu?

Denetik.

8 Talde eta musikaririk gustokoena?

Kepa Junkera.

9 Ba al duzu neskalagunik?

Bai.

Bertsoak

EUSKERIA ERABILI MUTIL!!

Mobida ona denok duguna gure hizkuntza bultzatzen Aberria aurrera atera Ta muga hauek zabaltzen.

Euskeraz hitzegiten al dakik Ba orduan zertan habil? Frankon garaiak joanak dituk Euskeraz hitzegin mutil.

Guk bota dugu teoria zuek orain praktikatu ez gera zuen irakaslea baina esara ulertu.

Emaitza onak ateratzeko gauzak aldatu beharko Euskera ibili gure ahotan erderia baztertzeko


DOINUA: ANDRE MADALEN

Jolasean.....

Hitz gurutzatuak

Behean agertzen diren hitzak kokatu itzazu laukietan

- | | |
|---------|--------------|
| 3 HIZKI | MAHAI |
| ITO | 6 HIZKI |
| ERA | URTARO |
| 4 HIZKI | ARKATZ |
| OIHU | HOTELA |
| KAIA | KANIKA |
| URRE | 7 HIZKI |
| HAUR | PAILAZO |
| ZERU | BARAZKI |
| KATU | HIZTEGI |
| 5 HIZKI | 8 HIZKI |
| ARAZO | KARAMELO |
| GELDO | IRAKASLE |
| JIPOI | IHAUTERI |
| URRIA | 12 HIZKI |
| JOLAS | BETAURREKOAK |



Etxebizitza:

Erosteke loteria tokatu behar

32 urtetik beherakoek laguntza bereziak dituzte etxeak erosterakoan

EUSTATEk 1991n kaleratutako estatistiken arabera, Bergaran 5.489 etxebizitza daude eta 900 etxetan inor ez da bizi. Azkenaldian etxe ugari egin da herrian eta ia gehienak gazteek erosi dituzte. Hauen arazorik haundiena prezioari aurre egitea da.

8oko hamarkadaren bukaera aldean etxebizitzaren eskaerak nabarmen egin zuen gora Bergaran. Ondorioz, etxe berriak egiteko lurzoruaren eta bigarren eskuko etxebizitzaren prezioak igo egin ziren.

Hori eraikitzaileentzat ordea, ez da arazo izan, etxe ugari egin baita azkenaldian: Espoloian, Osintxun, Ibargarain, lehengo Vergaresan... Une honetan, berriz, Bolun, Mugertzan eta Zubiaurren ari dira eraikitzen. Mugertzan 15 etxebizitza izango dira, 3 gelako 13 etxe eta 2 gelako 3; prezioak desberdinak badira ere, batzuek beste 14 miloi t'erdi balio dute eta denak salduta daude. Arruriagan oraintxe bukatu dituzte. Martokuan 12 etxebizitza egin berri dituzte: 78 m²-ko batek esaterako, 15 miloi inguru balio du. Aurki Soledadean hasiko dira etxe gehiago eraikitzen.

Alokairuak arrakastarik ez

Inmobiliaria batekoek esan digutenez, jendeak pisua alokatzeko baino erosteke joera handiagoa du. "Alokairuak 40.000-



Bergaran ia 900 etxebizitza hutsik daude.

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



60.000 bitartean dabil-tza eta jendeak nabia-izaten du dirua norbera-rena izango den etxean gastatzea, bilero inori ordaintzea baino".

Inmobiliariakoen ar-bera, salgai dauden etxe zaharrek oso prezio des-berdinak dituzte, gutxi gora-beherako bat ere ezin da eman. "Etxearen prezioan gauza asko bartu behar dira kontu-an: m2ak, kokagunea, berri erdian dagoen, leku eguzkitsua den, zen-bagarren pisua den, ur-teak, berogailua, berritze lanik eginda duen... Bi etxe atari berean egon arren, bata bestea baino askoz garestiagoa izan daiteke".

Bergaran etxeak Oña-tin baino garestiago baina Arrasaten baino 2-3 miloi merkeago daude. "Arra-sateko zenbait bikote Bergarara etorri dira eu-ren herrian etxea erostea oso garestia delako". Bergaran bertan, kokagune-aren arabera ere prezioak aldatu egiten dira. Ho-rrela, "Bergaratik Osin-txura joan direnak ere badira; berri batek 14 miloi balio du". Inmobi-liarien esanetan, "etxeak erosten dituzten ghe-bienak gazteak dira (20-28 urte). Bikotekideak lane-an badihardute eta sol-data on samarra badute berria erosten dute, bai-na oro har, bigarren es-kukoak erosten dituzte, batez ere, Bolun, Zu-

biaurren eta Poligono-an". Bigarren eskukoa erosten duten ia guztiek laguntzak lortzen dituzte.

Laguntzak nola lortu

Banketxeen kreditu hipotekarioak 8'75- 9'25 inguruan dabil-tza. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak kreditu merkeagoak lortze-ko laguntzak ematen ditu.

Laguntza hauei bu-ruzko informazioa astear-tero Bergarako udaletxe-an SURADESA elkarteko Miren Argi Zeziagak ematen du, 9etatik orduba-tera. Berak esan digunez, Eusko Jaurlaritzak 3 mo-tatako laguntzak ematen ditu etxea erosi zein erre-abilitatzeko:

- %15eko onura fiska-la; onura hau eskuratzeko tramitazioa egitea ezin-bestekoa da.

- Kreditu bigunak: %4'75, 6, 7'5, 8'5, 8'75 eta 9'5eko kredituak dira. Etxea erosiz gero, kredi-tuok 20 urterako dira, bir-gaitzekotan 5 urterako.

- Fondo galdurako di-rulaguntzak: kasu zehatz batzuetan ematen dira:



Etxebizitza huts ugari egon arren eta etxe eraikitzaileek "gauzak geldirik" daudela ziurtatu arren, etxe berriak egiten ari dira herrian.

auzoko lanak egiteko... Laguntza hau eskuratzen duenak dirua interesik gabe jasotzen du.

Birgaikuntzan etxea-ren %25eko balioa baino

lan handiagoa egiten ba-da BEZ zerga %16tik %7ra jeisten da.

Dirulaguntza hauek nahi duen orok eska di-tzake, baina baldintza bat

"Laguntza publikoak izatean gero eta jende gehiagok birgaitzen eta erosten ditu etxeak. laz egindako eskaerarik gehienak gazteenak izan ziren, bigarren eskuko etxeak erosteko"

EXUKUN
BEREZITASUNAK
 Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
 BERGARA

Goierri
AUTOGIDARIEN ESKOLA
 Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

bete behar da: etxea 90 m² (familia ugaria bada 120 m²) baino handiagoa ezin da izan. Subentzioak pertsona bakoitzaren araberakoak dira, hau da, eskaeragile bakoitzaren familia-egoera eta diru-sarrerak aztertzen dira.

34 urtetik beherakoentzat laguntza bereziak

Aipatutako dirulaguntzez gain, 34 urtetik beherakoek beste laguntza bat lortzeko aukera dute: 75 m² baino gutxiagoko etxebizitza erosiz gero eta dirusarrera lanbide arteko gutxieneko soldata baino 3'5 aldiz txikiagoa bada, 4'75eko kreditua eta fondo galdurako %2 edo %4-ko kreditua lor daiteke. Miren Argi Zeziagaren



Bergaran alokairua 40.000-60.000 pzta. bitartean dago eta jendeak nahiago du diru hori norberarena izango den etxean inbertitzea.

esanetan, "laguntzak izatean, jendea errazago

animatzen da etxea erostera edo birgaitzera. Bergaran iaz 53 espediente egin genituen; gehienak gazteen eskaerak izan ziren, 2. eskuko etxeak erosteko".

Birgaitze lanak egiteko eskariak ere ugari izan ziren: "herri erdiko etxe zaharrek laguntza handixeagoak jasotzen dituzte, oro bar, bertan bizi direnak zaharragoak direlako eta normalean

diru-sarrerara txikiagoak dituztelako".

Jaurlaritzaren laguntza hauetaz gain, Udalak eta Diputazioak ere izaten dituzte eskaintzak. Iaz Barrenkalen konpondutako fatxadak, esaterako, Diputazioaren laguntzez baliatuz egin ziren.

Etxebizitza erosi nahi duten gazteek diru laguntzak jaso ditzakete baina, askotan, loteria tokatu zain egon behar dute...

Bergaran etxeak Oñatin baino garestiagoak dira, baina Arrasaten baino merkeagoak

Iaz Bergaran Jaurlaritzaren laguntzak jasotzeko 53 espediente egin ziren. Deba Garaian 407 espediente egin eta 91 milioi inbertitu ziren.



KOXKA

- Gozokiak
- Fruitu lehorrak
- Jaunartze eta jaietarako enkarguak

Fraiskozuri, 3 ☎ 76 23 89

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

Udal Hauteskundeetako hautagaiak



ALKATEGAIA



Victoriano Gallastegi

54 urte
Bergarako alkatea



ALKATEGAIA



Maite Aristegi

32 urte
Abokatua



ALKATEGAIA



Juan Mari Garitano

52 urte
Langile autonomoa



ALKATEGAIA



Alvaro Esparza

42 urte
Funtzionaria



ALKATEGAIA



Andrés Díez Timofeva

37 urte
Karteroa

Zinegotzigaiak

- Jabier Gabilondo
- Luis Abajo
- Koldo Pereira
- Felipe Altuna
- Xabier Zabaleta
- Nere Amaia Zabala
- Antonio Herzog
- J. Antonio Aperribai
- G. Muruamendiaraz
- Carlos Arrondo
- Nerea Plazaola
- Argiñe Fernández
- Jose Luis Eginio
- Beatriz Lazkano
- Ion Mirena Leturia

Zinegotzigaiak

- Jesus Mari Garitano
- Aitor Aranzabal
- Mikel Eguren
- Ane Miren Olabarria
- J. Ramon Etxeberria
- Agurne Barruso
- Iñazio Gabilondo
- Roberto Aranzabal
- Margarita López
- Xabier Arregi
- Iñaki Arietaleaniz
- Juanito Kortabarria
- Juan Luis Arregi
- Kontxi Otxoa
- Josu Goenaga

Zinegotzigaiak

- Jose A. Etxeberria
- Juan Garitano
- Kontxi Irizar
- Bitxor Gorrotxategi
- J. Carlos Berraondo
- Jesus Elorza
- Arantzasu Narbaiza
- Alberto Bolibar
- J. Ignacio Madariaga
- Nere Mujika
- Emilio Acebo
- Jose Luis Akizu
- Imanol Alberdi
- Juana Otaño
- Felix Unamuno

Zinegotzigaiak

- Javier Cendoya
- Marino Millán
- Alfonso Zafra
- Juncal Orbea
- Javier Cambronel
- Fco. Javier Garay
- Begoña Urbistondo
- Rafael Sánchez
- Agustin Sánchez
- Ana Maria Sánchez
- Jose Tejada
- Juan Pineda
- Justi Sánchez
- José Morales
- María Luisa Quintas

Zinegotzigaiak

- Isabel Salud
- Juan Manuel García
- Mari Carmen Zabaleta
- Amando Blanco
- Eulogio Díez
- Ana María González
- J. Francisco Alberdi
- Salvador González
- Arrate Romero
- Miguel A. Hernández
- Luis García
- Joaquín Garrido
- M. Belén Arza
- Victor Lekunberri
- Ernesto Hoz



PSE-EEren zerrenda aurkeztu zen aurreko astean. Alvaro Esparzak azaldu zuenez asmoa bi zinegotzi lortu eta elkarrizketa, lana eta pakearen alde lan egitea da. Esparzak oso positibotzat jo zuen legealdi honetan EAJrekin Udalean egindako lana.



EAk asteartean presentatu zituen bere hautagaiak. Juan Mari Garitano zerrendaburuak 3 edo 4 zinegotzi lortu ditzaketela eta Udaletxean ordezkariatza lortzen duten alderdi guztiek parte hartu behar dutela Udal Gobernuan esan zuen.



HBk gazteak eta helduak tartekatzen ditu eta zerrendaren lehen postuetan aurreko legegaldiko zinegotzi bakarra dago, Garitano. Bere helburu nagusia herriko lehen indar politikoa izatea da. Ongizatea, ingurugiroa edota auzoak dira bere ardatz nagusiak.

Aste Santuan kanpora irtetzeko asmorik badaukazu? Nora joango zara?



Unai Aperribai

21 urte, ikaslea


Bai, lagunekin mendira, Isabara joango naiz Aste Santuko egunetan. Koadrilako beste batzuk Haro eta Laredora joango dira.



Maite Aristegi

9 urte, ikaslea

Egun batetan amarekin mendira joango naiz, Xoxotera, baina beste egunetan ziurrenik Bergaran geldituko naiz.



Pedro Mari Zubia

44 urte, langilea

Ez naiz irtengo. Beste urte batzutan ere herrian geratu naiz eta aurten ere bai. Dirua behar da kanpora joateko....



Mari Tere De Pedro

49 urte, etxekoandrea

Bai, familiarekin kanpora irtetzeko asmoa daukat. Araiara, Arabara joango gara egun batzutako atsedena hartzeko.



Joaquin Macías

18 urte, langabetua

Nobixarekin Extremadurara joango naiz egun batzuk pasatzera. Hemen ez da ezer egoten eta irtetzeko gogo asko daukat.



Esther Ortiz de Zarate

18 urte, ikaslea

Oraindik ez dakit baina ziurrenik Bartzelonara joango naiz, izeba bisitatzen. Aste Santuko egunak han igarotzeko asmoa dut.


TOSHARE
☎ 76 29 70

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi ☎ 76 15 09

KONDE
 PANADEROKUA
Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

IGARO
✓ Kosmetika eta oparigaiak
✓ Eder gela
✓ Bio Solariuma
Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

ARRANO
 Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA



Javier Marquiegui

Eeee...ko militante izatetik, politikoa independente lanera pasatu ondoren, arriskuan ikusi zuen bere lana, bizpahiru urte dela edo. Garai hartan, Ezkerraldeko eskola batean zeukan irakasle-postua, exedentzian. Eta eskolaren erreforma zela-ta, bertara joan omen zen, OHOk beste guztiak bezala, habilitazioa egitera. Honelaxe esan omen zuen orduan: "parlamentari independente jarraitu ezean problemarik ez: nire irakasle-postura bueltatu eta ohizko lanari ekingo diot berriz ere".

Kontua baina, ezin horretan geratu: komunitateko hiritar euskalerritarren Ararteko jarri dute. Itxuraz, hain postu inportantea izanda, elebidun behintzat behar luke. Baina ez. Ez daki euskaraz. Ez omen dute halakoetan perfilik (hizkuntz soslai edo eskaki-zunik) behar. Buesak ere ez du, irakasleon nagusi izan den arren. Horrek, hala ere, lan bakarra zuen: gizarateak hala eskatuta, euskaraz lan egitera derrigortuta gauden irakasleon nagusi.

Marquieguik, alde batetik, antzera dihardu: politikoei "bula" omen daukate. Baina, beste aldetik, exedentzian egon arren, irakaslea ere bada; eta hori, bere horretan hartuta poztekoa litzateke ofizikoontzat: aizu, irakaslea... Ararteko! Baina poztekoa izan behar zuenak ofizikoaren, eta jeneralean euskaldunendako mezprezu itzela besterik ez dakar: irakasleek elebidun bihurtu behar dute lanean hasi eta, kasu askotan, jarraituko badute. Baina gure ikasle-erdarartekoak ez. Hobe oker banengo! Agian ikasten hasi da, arinaiztarren mailatik urruntxo badago ere, eta horrela, ez litzateke hainbeste lotsatuko euskaldundu beharreko funtzionarioen kexak tramitatu behar izatekotan... Arazoaren gakoia ez dago bere aktitude pertsonalean, horretarako bide ematen duten erakundeen norabide-falta larrian baizik. Alegia, legeak egin baina besteok, menpeko hiritarrok, botua emateko beste eskubiderik ez dugunok bete ditzagun. Gogorra da kaka burutik behera nola egiten diguten ikustea! Ez ahal gara horretan behintzat ohituko.

Iñaki MOZOS



Pasotismoa? Ez!!

Askotan aritzen gara gizaratean azken urteotan nabari den pasotismoaz. Jendeak ez omen du arazoetaz kontzientziarik, gazteok guztiaz pasatzen omen dugu...

Eta guzti hau Bergaran ere nabaria da. Gizaratearen arazoak ez ditugu geure arazo moduan ikusten. "Hori ez da nire kontua" esanda dena konpontzen dugu. Bakoitzak bere bizimodua ahalik eta gutxien konplikatu bizitzen saiatzen da.

Nire lagun bat kanpotik etorri eta Euskal Herria ezagutu zueanean, zera esan zuen: "hemen oraindik borrokatu daiteke". Eta egia esan oraindik gauza askotan dago gure lan beharra. Oraindik gure herrian betidanik egon den kontzientzia ez da guztiz itzali.

Gizaratea azkenaldian nahiko desbideratuta dabilela uste dut. Gauza asko gertatu da eta agian ilusioak sapustu egin dira. Baina egoera nahasgarri honen aurrean ere agertzen dira kontrako jokakerak. Orain dela gutxi pasatu den korrikaren inguruan mugitu den jendeak ere hori erakutsi digu. Herrian bada oraindik lanerako gogoia ere. Momentu hau aprobetxatu nahiko nuke modu batean edo bestean Korrika bezalako jai erraldoi bat antolatzen bere laguntza eskeini diguten guztiei.

Oraindik jendeak sinesten du gizaratean. Oraindik ametsak bizi dira. Gure herriak eta hizkuntzak merezi du.

Ainhoa LETE

Pepelu

Ilepaindegia

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

iletxo

ileapaindegia mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Dokorea, 7 BERGARA
☎ 76 53 15

**BEHEKO
TABERNA**

**Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta

☎ 76 11 50



Goian ikus dezakezue Ikastola Aldizkariak saritutako argazkia. Eskumako argazkian, ostera, Irati Azepeitia.

Argazki saritua

Irati Azepeitia Garitano Aranzadi Ikastolako 5 urteko ikasleak sari bat irabazi du Ikastolen Elkartearen "Ikastola" aldizkariako argazki lehiaketan. Otsaileko aleko "Denok argazkilari" izeneko lehiaketan Iratik argazki ederrenaren saria eskuratu du goian ikus dezakezuen lanari esker eta, sari gisa, bere familiarekin asteburuko gau bat igaro ahal izango du Elizondoko Saskaitz hotelean. Zorionak eta eutsi afizioari!!



Aste Antimilitaristaren azken txanpa

Larunbatean eman zitzaion hasiera BOTAk antolatutako **Intsumiso aste**ari. Herriko hainbat margolarik muralak margotu zituzten Plazan eta gerturaten zen jendeari sagardoa eta pintxoak banatu zitzaizkion. Gauean, berriz, 120 pertsona inguru izan ziren Sobradun taldearen Herminio y Miguelito antzezlan ikusten Mariaren Lagundian. Asteazkenean ere hainbat ekitaldi izan dira (kafe teatroa, musika, hitzaldiak, bideo emanaldiak...) eta bukatzeko gaur gauean, 11etan, **Txokolate**

Revenge eta **The Allnighters** taldeen kontzertua iragarri da Pol-Polen eta bihar, parodia antimilitaristaren ondoren manifestaldia izango da San Martin Plazan arratsaldeko 8etan.



Goiko argazkian Xabier Labaien astehenean eskaini zuen musika saioan. Aldamenean, muralen pintaketa.



MUJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA



Ruandaraino

Heldu dira bai Ruandaren alde egin zen Txakur Leren I. Euskadiko Itzuliaren lehen ohiartzunak Ruandara. Bolanteekin hartutako atuna hara eraman duen espedizioak eraman ditu itzulirako egin ziren kamisetak ere. Argazkian, Muginako misioko Bedast izeneko sukaldaria ikus dezakezue "Denok Ruandarekin" lema duen kamisetarekin. Bertan hainbat gipuzkoar misiolari ari dira lanean. Babiliteke itzulian batu-



Ruandar bat Txakur Leren I. Euskadiko Itzulia zela eta etaratako kamisetarekin.

tako dirua misio horren bitartez bidaltzea. Bien bitartean lehen hasitako lanari eutsi diote berriz ere misiolari-riek. Dirulaguntza, dudarik ez, ezinhotu beto etorriko zaie...

Zertan dihardute ba?



Dani Laskurain 28 urteko margolari bergararraren hainbat lan ikusgai daude egunotan Bilboko Area 2 (Alameda de Mazarredo, 35) erakusgelan. Bizkaiko Diputazioak antolatutako erakusketa honetan Danirekin Arte Ederrak ikasketak burutu zituzten beste 5 artistak ere hartzen dute parte. Daniren hitzetan, "oso esperientzia polita izan da. Hilabete batez alokatutako lokal batean elkarrekin lanean izan ginen. Koadroez gain, bakoitzak testu bat idatzi zuen eta testu hori entzuteko aukera ere badago. Ni Diderot animalien enziklopedian oinarritu naiz. 4 koadro dira eta paper birziklatua edota collagea erabili ditut nolabait faunaren ikuspegia emateko".



Gorla-zuri egoera kaskarrean

Egoera penagarrian aurkitzen da Gorla-Zuriko txabola. Eguraldi ona hasi da eta inguruan jolasten ibiltzen den jendea kontu haundiz ibili beharko da bertako teilatuarekin. Teilatua zulatuta dago eta teilak jausteko arriskua bistan da. Ez dakigu nor

den bertako jabea baina ezer gertatu baino lehen dagokionari teilatua konpontzea eskatu nahi genioke, dagoenetan aterpe modura ere ezin daiteke erabili eta.

Usoa Pub

☎ 76 38 57
Irala, 1

Juan Ignacio MONTIANO Doktorea

Pediatra


San Martin Osasundegia

Ramon Maria Lili, 2 ☎ 76 59 39

Aurelio Ot

Aurelio Ot (58 urte) herriko urbano gidarietako bat da orain dela 23 urtetik. Bere kalkuluen arabera bi urbanoen artean urtero 250 kilometro inguru betetzen dituzte. Ola eta San Juanen arteko ibilbidean urbanoa erabiltzen dutenek ondo ezagutzen dute.

- Zenbat balio du urbanoak?
- 60 pezeta.
- Zein adineko jendea ibiltzen da urbanoan?
- Ikasleak eta erosketetara doazen andrak batipat.
- Zein sasoitán jende gehien?
- Neguan. Eta ordu puntetan urte gutzian.
- Punturik konfliktiboenak?
- Zubiaurre eta Martokua.
- Arazorik haundiena?
- Jendeak ondo aparkatzeko ardurarik ez duela hartzen.
- Jende gehien eraman duzun aldia?
- 140 lagun urbano haundian (118 lagunentzat baimene zuen), orain 14 bat urteko entierro batera.
- Urbanoan erre daiteke?
- Nahiz eta zenbaitzuk erre,



"Ikasleek eta erosketetara dihoazten andrek erabiltzen dute urbanoa batipat. Punturik konfliktiboenak Zubiaurre eta Martokua dira. Ordu libreak ehizan edota ortuan lanean igarotzen ditut"

debekatuta dago.

- Jendea kolatu ahal zaizu inoiz?
- Normalean ez. Batzutan mutikoren batzuk...
- Jendearekin berba egiten duzu?
- Zerbait galdetzen badidate erantzuten dut.
- Zenbatero garbitzen duzu urbanoa?
- Beharrezkoa denean.
- Autozerbitzuko gasolindegien alde ala kontra?
- Kontra. Nahikoa ordaintzen da zerbitzeko pertsona bat jartzeko...
- Zein abiadura limite daukazu?
- Herri barruan, 40 Km. orduko.
- Puntuala al zara?
- Bai.
- Autobusik onena?
- Pegasoa.
- Bidaiatzeko trena ala autobusa?
- Autobusa, trenak normalean beste konbinazio bat eskatzen dizu.
- Bidaia bat nora?
- Ez naiz bidaiazalea. Orain gutxi bat tokatu zait eta ez naiz joan...
- Hobby bat?
- Ehiza eta ortuan lan egitea.
- Martxa atzera ala aurrera goaz?
- Aurrera. Teknoloiarekin asko aurreratzen ari gara.

SANTOS
IRRATI-TB

ELEKTRAGAILUAK
SUKALDE ALTZARIAK
ARGIZTAPENA
ANTENA KOLEKTIBOAK
TB, BIDEO ETA SOINU
APARAILUEN
KONPONKETA

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35

Deco-Textil
ZANGITU

Etterako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69



gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA

PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

EZAGUTU!!



**Integrée Medical Point-en
abantailak LILURA Edertze
Institutuan**

Guadalupe Garciak, zuzendariak, informatuko zaitu, inolako konpromezurik gabe

***INTEGRÉEn, zirujia estetikoaren
teknikarik aurreratuenak garatzen dira,
dermoestetizistaren laguntzaz***



◀ Lipoeskultura ultrasonikoa eta liposukzioa, eta masaia drenantea.

Aurpegi eta lepoko lifting osoa, eta aplikazio kosmetologikoa eta masaia. ▶




◀ Bularrak haunditzeko kirurgia-ebakuntza gehi azalaren tonifikazioa, aplikazio kosmetologikoa berezituarekin.

***SOLARIUMerako eskaintza bereziak:
Udaberri eta udan ERDIPREZIOAN!!
Bisita gaitzazu eta informatuko zaitugu***

ALZAS ELEKTRAGINTZA

**Korronte alferno eta
zuzeneko makina
elektrikoen eta
abiada haundiko
induzituen
konponketa eta
bobinaketa**



Antigua auzoa, 3 ☎ (943) 76 64 14 Faxa: (943) 76 62 99 20577 ANTZUOLA

ENPRESA ETA INSTITUZIOEI OHARRA

ESKUALDEAK: Deba Garaia, Deba Behea, Urola, Goierri eta inguruneak

Zure bulegoan, tailerrean, irakasle gelan edota bilera gelan instalatzen ditugu.

GUZTIZ DOHAIN KAFE EXPRESS ETA EDARI BEROEN MAKINAK

ESPEZIALISTAK GARA: Industri txiki eta ertainaren zerbitzuan, lantokian bertan laguntza tekniko eta produktuen suministroa eskainiz.

EKIPAMENDUA: Txanpon edo fitxekin funtzionatzen duten ekipamendu tekniko modernoak, Europako vending merkatuan liderrak.

ESKAITZEN DIZUGUN ZERBITZUAK:

Kafe express, kafe luzea, kafesnea, ebakia, deskafainatua, esnea, txokolatea, capuccino eta infusioak.



Bending
zerbitzuak *Bergara*

KALITATE HAUNDIKO VENDING ZERBITZUA

Eska ezazu informazioa
konpromezurik gabe:
Tefnoa: 76 38 52 / Faxa: 76 09 14

ETXEBIZITZA

Duplex bat salgai Masterrreka 6an. Berritzeko aukera. ☎ 13 35 27.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Baserria salgai Elosun. ☎ 76 57 24.

Garajea salgai Torrekuan. ☎ 76 16 68.

Garajea alokatzen da Koldo Eleizalden. ☎ 76 30 10.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Garajea salgai Antzuolan (Ibarrondon). ☎ 76 63 65.

Pisua salgai Zumaian. ☎ 76 44 53/74 31 81.

Bi pisu alokatzen dira San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

Pisua salgai Osintxun. ☎ 76 55 98/17 27 (gauetz).

Garajea salgai Boni Lascurainen. ☎ 76 15 64.

Pisua salgai Artzamendi 17an. ☎ 76 10 55.

Garajea salgai Kruz Gailastegin. ☎ 76 27 39.

Garajea saltzen edo alokatzen da. ☎ 76 21 09.

DENETARIK

Mobylette **motorra** (49 cc.) salgai. ☎ 76 59 15.

Soinu beltza salgai. ☎ 76 59 95.

Yamaha XT-E Trail motorrer salgai. ☎ 76 03 40.

Strong bateria salgai. 20.000 pta. ☎ 76 32 39.

Trialeko Cota 349 motorrer salgai. ☎ 76 18 96.

Botoidun **akordeoia** erosiko nuke. ☎ 76 28 86.

Korredorezko Biondi bizikleta salgai. Oso merkea. ☎ 79 49 30 (losu).

Futboleko bota berriak salgai. 38 zenbakikoak. 5.000 pta. ☎ 76 48 68.

Donostian **pisu** bat osatzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 25 61 (Maite).

Mobiyette Cady bat salgai. ☎ 76 54 73.

Reflex Minolta argazki kamara (7000 AS) salgai. 35-70 eta 70-120 objetiboak eta flasharekin. ☎ 76 04 15.

Volkswagen Polo GTI (SS-AJ) kotxea salgai. Egoera onean. ☎ 76 38 72 (Asier).

Karta astralak egin eta tarotekoak botatzen dira. ☎ 76 07 87 (Jabier).

Hilero **250.000 pta.** irabazi nahi izanez gero bidali sobre bat. 20.580 PK. Osintxu 16. 2.B.

LANA

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etkez etxeko garbiketak. ☎ 76 46 14 (Pili).

Frantsez eta ingeles klaseak. ☎ 76 07 87 (Aran).

Etkez etxe **OHO**ko klaseak. Matematikak, ingelesa, euskara. ☎ 76 40 27.

Propaganda banatuko nuke. ☎ 76 17 84.

Ingeles batekin gaztelera eta ingeles klaseak aldatuko nituzke. ☎ 76 24 54.

Matematika eta Zientzietako klaseak. ☎ 76 06 50.

BBB, UBI eta **Lanbide Heziketako** klaseak. Baita ethez etxe. ☎ 76 18 00.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 32 58 (Ana).

Zuzendaritza Idazkaritza ikasi ondoren lan egingo nuke. ☎ 76 11 32 (Marta).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

OHO eta zientzietako klaseak. ☎ 76 03 72 (Nerea).

Haurrak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Aleman klaseak ematen ditut. ☎ 76 00 81 (Idoia).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren).

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

OILAGORRA
TABERNA
Barrenkale, 21 BERGARA

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria
Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea
Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75

ORTZI
erretegia
Ezkontzak, jaunartzeak, despedidak...
130 lagunentzako jantokia
☎ 76 22 68 ANGIOZAR

BONOFOTOA



M. A. ELKORBEREZIBAR



Josu González

Josu Gonzálezek jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, aurreko BONOFOTOAn egindako galdera berak asmatu du eta. Argazkian agertzen zen begiratokia zein etxetan aurkitu zitekeen galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Izagirre edo Moia etxea** zen. Beraz, aste honetan 10.000 pezetak **Josu González** eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein da baserri honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara



emaitzak

▼ KOPA TXAPELKETA

Pikapiedras-Labegaraieta .	9-4
Krai-Nahikari Hooli	0-3
C. Bergara-Aldoka	8-4
Canalejas-Kirolzaleak	5-3
Ezinleike-Madura	3-4
Shaktale-Nekrofilikos	5-8
Los Txupeta-Ari Ari	4-3
Ufala-Uve Bikoitza	1-1
Kayak OJ-Bildurbarek	4-7
Usoa-La Juve	6-1
Ettagi-Mongatxurra	3-5
Soropotroak-Pata Negra ..	Susp.
EH Biterrak-Angiozar	Susp.
Errotagain-Arkupe	Susp.

komentarioa

Joan zen asteko komentarioan esaten genuen moduan La Juve eta Usoaren arteko emaitza izan zen ezustekorik handiena. Aste honetan Usoakoak gogor saiatu diren arren, 6 eta 1 irabazi zuten, gol bakar bategatik kanpoan gelditu dira. Kopan, ligan ez bezala, zorteak ere jokatzen du eta ondorioz txapelketa irabazteko bi faboritoek, Madura eta Errotagainek, elkarren aurka jokatu beharko dute. Ez dute erruak konpontzeko astirik izango, kanporaketak partidu bakar batera jokatu baitira. Bildurbarek eta Etxenagusiak-ek jokatu duten partidua ere azpimarratu daiteke.



Los Txupetak aurrera atera zuen Ari Ariren aurkako kanporaketa

Nesken futbito txapelketa astebukaera honetatik aurrera

Olinpiada Batzordeak antolatuta, bihar hasiko da Nesken II. Futbito Txapelketa. Guztira 8 taldek eman dute izena eta gaur Kultur Etxean egitekoa zen bileran erabakiko dute Ipintza institutoan jokatuko diren partiduen ordutegia. Aurtengo txapelketa orekatuagoa izateko antolatzaileek talde bakoitzeko hiru federatu bakarrik baimentzen dute.



Bulldog taldeak irabazi zuen ihaz txapelketa.

partiduak

▼ KOPA TXAPELKETA

LARUNBATA

Barruan

19.15: Eri-Nahikari Hooligans
Hartu Zamak
20.15: Hartu Zamak-Pikapiedras
Eri

IGANDEA

Barruan

10.00: Angiozar-La Juve
Etxenagusia
11.00: Bildurbarek-Etxenagusia
Errotagain
12.00: Madura-Errotagain
Kriterium
13.00: Ogizun-Kriterium
Madura
16.00: Arloteak-Nekrofilikos
OH Zerezos
17.00: Bar Canalejas-OH Zerezos
Los Txupeta
18.00: Los Txupeta-C. Bergara
Mongatxurra
19.00: Mongatxurra-Pagomendi
Ufala
20.00: Ufala-Kabia
Pagomendi



MUJIKA

Jantzidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar, 3 lbargarai, 8
☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73

Espainiako txapelketan

Aritz Bikuñak asteburu honetan Espainiako slalon txapelketaren finalak jokatu ditu Beriainen (Nafarroa). Bikuñak bere erruberazko aulkiarekin ahalik eta denbora gutxienean oztopoz beteriko zirkuito bat egin beharko du. Martxoaren 14an Iruñan jokatuako herrialdeko txapelketan Espainiako txapelketan parte hartzeko gutxienezko marka lortu zuen eta larunbat eta igandean jokatu diren probetarako asmo ezin hobearrekin doa.

Hitzaldia Pol-Polen

Larunbatean arratsaldeko 7,30etan Pol-Poleko areto nagusian Antonio Martinez madrildarrak bideo emanaldia eta ondoren hitzaldia eskeiniko du Alaskara egindako Mapfre 92 espedizioa azaltzeko. Espedizioak Alaska osoa zeharkatu zuen baliabide mekanikorik erabili gabe. Guztira 10 mila km inguru burutu zituzten txakurrek tiratutako leretan, oinez eta piraguen laguntzaz.

Txakur Leren Lasterketa igandean Gorla inguruan

Igandean goizeko 11etatik aurrera Gorlako inguruak txakurrez beteiko dira II. Txakur Leren Lasterketaren lehen postua lortzeko asmoz. Guztira 42 partaidek ziurtatu dute euren parte hartzea eta horien artean Axen Garitano bergarra izango dugu. Garitano 6 txakurrekin arituko da eta garaipena lortzeko asmoarekin irtengo da. Halere zail izango du Carles Franch, kataluniarra eta Goio del Real, madrildarra, baitira aurrez faborito nagusiak.

Lasterketa goizeko 11etan hasiko da eta lau txakur baino gutxiago dituzten lerak minutu bateko tartearrekin irtengo diren bitartean, lau txakur baino gehiago dituztenak lau minuturo irtengo dira. Lasterketaren zirkuitoa joan zen urtekoaren berdina izango da. Lerak kantinatik irtengo dira eta handik Trekutzeraino joan beharko dute, Pikulitta ingurutik bueltatuko direlarik 9 km inguruko



Txakur leren lasterketak jende ugari erakarri zuen iaz.

zirkuitoa eginez. Lasterketa ondo joateko antolatzaileek igande goizean Gorlara txakurrekin joaten direnak lotuta eraman ditzatela gomendatzen dute eta halaber, txakurrak Kantina parean ikusgai izango diren arren, ez ikutzeko eskatzen dute.

Gorlara kotxez joateko asmoa dutenek errepidearen eskuman eta beheruntz begira aparkatzeko ere eskatu dute,

horrela lehenago irtetzeko eta trafiko arazorik ez izateko.

Lasterketak irauten duen bitartean antolatzaileek dirua lortzeko kuestazioa egingo dute eta kamisetak ere salgai izango dira. Aurtengo lasterketan dirua sariak izango dira eta horrek lasterketaren aurrekontua 800 mila pzta. tara igo du eta horregatik jendearen laguntza eskatu dute antolatzaileek.



Lijo eta Zeziaga Josetxo Muniategiren aginduak entzuten.

Eskubaloian jokatzeari agur

Bergara eskubaloia talde nagusiak joan zen asteburuan amaitu zuen liga eta 14 taldeetatik, 9.en bukatu dute. Lortutako emaitza ezin hobea izan da, aurtengo denboraldia baitzen bergararentzat lehena kategorian berrian. Larunbat honetan kopa txapelketa jokatu dute Usurbil taldearen aurka eta ea borobiltzen duten orain arte egindako lana. Bestalde Xabier Lijo eta Iosu Zeziagak agur esan diote eskubaloitari. Lijok 13 urte eman ditu eskubaloian jokatzeko BKEko talde ezberdinetan eta talde nagusia lagako duen arren, kadeteen taldea entrenatzen jarraituko du. Zeziagak, berriz, 7 urte daramatza eskubaloian jokatzeko eta denbora faltagatik utzi behar izan du.

KARTELDEGIA

► **Futbola**

Bergara-Alde Zaharra

Lehen Errejlionala.

Larunbata, 17.15. Agorrosin.

Bergara-Soraluze

2. mailako jubenilak.

Igandea, 11.30. Ipintza.

Bergara-Mutriku

Lehen mailako kadeteak.

Larunbata, 11.30. Ipintza.

► **Eskubaloia**

Bergara-Usurbil

Senior mutilak.

Larunbata, 18.00.

Labegaraieta kiroldegian.

► **Saskibaloia**

Bergara-Euskalduna

Senior mutilak, 16.15

Labegaraieta kiroldegian.



► **Futbola**

REALA BERGARAN

Realak antolatzen duen

Jubenil mailako Nazioarteko

Futbol Txapelketako partidu

bat jokatu da Agorrosinen

Astea Santuan. Realak eta

Olympique Lyonnais-ek

jokatu dute.

Larunbata, 11, 17.00etan.

Iñurrategi anaiak

Cho Oyu eta Lotse-ra begira

Felix eta Alberto Iñurrategi mendizale atxabaltarrak Bergaran izan ditugu egun hauetan euren esperientzien berri ematen.

- Everestera duela bi urte igo zenuten, horrek asko aldatu al du zuen bizitza?

- Berdin jarraitzen du. Aldatzen dena jendeak gehiago ezagutzen zaituela eta zenbait aspektutan "pelmada" handiagoa ematen digutela.

- Baina bestalde espedizioak montatzeko laguntza gehiago izango duzue...

- Bai, jendeak gehiago ezagutzen gaitu, baina horrek ez du esan nahi mugitu beharrik ez dugunik.

- Orain arte igo duzuen mendirik zailena?

- Zailena ez dakigu, baina esker txarrekoena K2a, lan asko egin behar izan genuen mendira hurbilketa egiten eta igotzerakoan ere beste batzutan baino lan gehiago eman zigun.

- Espedizio bat egiterako orduan, aurretik igoko duzuen segurtasunik ba al duzue?

- Ikusten dugu aukerarik izango dugun ala ez. Aukera hori ematen bada, saiatu egiten gara.

- Zela gertatzen duzue eta zenbat denbora ematen duzue horrelako espedizio handi bat egiteko?

- Espedizioa antolatzen urtebete inguru ematen dugu. Halere, zenbat eta denbora gehiago izan espedizioa antolatzeko, or-

duan eta gehiago kostatzen da. Beti izaten gara azken ordurarte itxويتen eta.

- Ze izaten da zailena lortzeko?

- Dirua.


- Ze proiektu dituzue etorkizunerako?

- Urtero espedizio bat egiteko dinamikan gabiltza eta helburua denboraldi berean bi zortzi milako egitea da. Uztailaren bukaeran Nepalera joateko asmoa dugu eta bi zatitan banatuko dugu espedizioa. Lehenengo zatian Cho Oyura igotzen saiatuko gara, ez ohizko bide batetik, baizik eta Suitzarrek 90ean zabalduetako bide batetik. Gero hori saiatu

ondoren, Lotsera pasatuko ginateteke eta hori igotzen saiatuko gara. Bi mendiak ere modu alpinoan igoko ditugu, zerbait berria probatzearen. Orain arte tankerak horretako mendiak igotzen modu tradizionalean ibili gara eta orain pauso berri bat eman nahi dugu alpinoan zela moldatzen garen ikusteko.

- Menditik bizi al zarete?

- Ez, orain erakusketetan eta gabiltza. Baina orain arte Alberto fundizio batean ibili da lanean eta ni (Felix) espedizio artean beste gauza batzuk egiten aritu naiz. Orain anaiak eszedentzia eskatu du eta erakusketarekin gabiltza.



"Gehiago ezagutzean pelmada handiagoa ematen digu jendeak"

"Urtero espedizio bat egin eta denboraldi berean zortzi milakoa egitea da helburua"



Dantzarako gertu

Erramu zapatuan ferixara joateko apropos jantzi eta dantzan egun on bat pasatzeko asmuakin kalera urtendako kuadrillia. Antzuolar eta bergarar honek, erretratuan agertzeko amorru biziz, zein aurrerau ipiñi dabizela emoten dau.

Ikastolatik, kalia animatzen orduan ibili zien moduan, ia aurten be ikusten ditudun.

Ezkerretik eskumara:

Aurrian: Antonio Astiazaran, Jone Legorburu, Argiñe Agirre, Mikel Kerejeta, Patxi Legorburu, Igor Garzia, Olatz Alzelai, Maite Toledo.

Atzian: Konsuelo Errasti, Aitor Osinalde, Asier Linazisoro, Gotzon Iparragirre, Xabier Berasategi, Julen Iparragirre, Moises Aspiazu.


Felipe Iñarra

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN



LITZAR

ALTZARIAK

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

IKUSI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irizar, 2 ☎ 76 53 09



DEBA

GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

Simon
Arrieta, 3

OINETAKOEN
KONPONKETA

Gorka

Mota guztietako
konponketak
Bizkortasuna eta
garantia osoa



umelaga

JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



edertu

BARRENKALE, 23

☎ 76 29 65

BERGARA

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA


CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA,
ZUBIZARRETA, ZULUETA, ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak.

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Haurdunaldiaren kontrola
- Txekoak
- Bularretako gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

**GUZTI HAU
ARRASATEN
BERTAN,
URRUTIRAGO
JOAN BARIK**



Zerkaosketa, 17 behea ARRASATE
Tfnoa: 79 20 18



Maialako Errabala, 13 ("OKENDO KIROLAK" en ondoan) Tfnoa: 79 50 78 ARRASATE

UNITED COLORS
OF BENETTON.